

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITOKO GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA**

**ENTITATEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

---

Erreferentziako ekitaldiaren amaiera-data: [ 2022-12-31 ]

IFK: [ F75076935 ]

Sozietatearen izena:

[ CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO ]

Egoitza soziala:

[ JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA PASEALEKUA, ZK.G., ARRASATE, GIPUZKOA ]

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITOKO GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA

### A. JABETZAREN EGITURA

A.1. Esan nor diren entitateko akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenak, ekitaldiaren itxiera-datan:

Akziodunaren edo partaidearen izen soziala	Kapital sozialaren %-a
LAGUNARO EPSV	% 15,02

A.2. Adieraz itzazu, dagokionean, akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenen artean dauden familiako, merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak (entitateak ezagutzen baditu), garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izena edo izen soziala	Harreman-mota	Azalpen laburra
Daturik ez		

A.3. Adieraz itzazu, dagokionean, akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenen eta entitatearen artean dauden merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak, garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izena edo izen soziala	Harreman-mota	Azalpen laburra
Daturik ez		

A.4. Esazu estatutuetan, legeetan edo bestelakoetan murrizketarik badagoen, baloreak transmititzeko edo boto-eskubiderako. Zehazki, jakinarazi egin beharko da, sozietateak merkatuan dituen akzioak eskuratzearen bidez berori kontrolatzea eragozten duten edonolako murrizketak daudenean, eta sektoreko araudiari jarraikiz konpainiaren finantza-tresnen eskurapenari edo transmisioari aplikatzekoak diren aurretiazko baimen- edo jakinarazpen-erregimenak daudenean.

Bai

Ez

#### Murrizketen azalpena

Kooperatiben legerian agindutakoaren arabera, bazkide pertsona juridikoak ezin du kapitalaren % 20tik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan. Orobat, bazkide pertsona fisikoak ezin du kapitalaren % 2,5etik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan.

## B. BATZAR NAGUSIA EDO PAREKO ORGANOIA

### B.1. Zerrenda itzazu estatutuetan ezarrita dauden Batzar Nagusiaren edo pareko organoaren eraketa-quorumak.

Esan ezazu zertan ez duen antzik Kapital Sozietateen Legean (KSLan) aurreikusitako minimoen erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legerian ezarritakoari jarraikiz eta hartu beharreko erabakia edozein delarik ere, Batzar Nagusia lehen deialdian baliozki eratzat joko da, bazkideen erdia baino gehiago bertaratu edo ordezkatzan denean, eta, bigarren deialdian, bazkideen % 5 edo 100 bazkide gutxienez bertaratzan direnean.

### B.2. Azal ezazu zein den sozietate-erabakiak hartzeko erregimena. Esan ezazu zertan ez duen antzik, KSLan aurreikusitako erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legeria aplikatuz, baliozki emandako botoen erdia baino gehiago behar izango da erabakiak hartzeko. Bat-egiteak, zatiketak, obligazioen eta beste balore batzuen jaulkipenak edota estatutuen aldaketak egiteko, bertarata edo ordezkata dauden bazkideen botoen bi heren behar izango dira gutxienez.

### B.3. Labur itzazu txosten honek aipagai duen ekitaldian batzar nagusiek edo pareko organoek hartutako erabakiak eta erabaki horien alde emandako botoen ehunekoak.

Ekitaldian, 2022ko apirilaren 8an egindako Batzar Nagusiak erabaki hauek hartu zituen, eta hauek izan ziren botoen ehunekoak:

- Hiru bazkide izendatzea, kasuan kasuko batzarraren akta onesteko (aho batez).
- Entitateari eta beraren talde bateratuari buruzko 2021eko ekitaldiko Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena onestea (aho batez).
- 2021eko Informazio Ez-finantzarioaren Txostena onartzea (aho batez).
- 2021eko ekitaldiko kapital sozialari ordaindu beharreko interesa onartzea (aho batez).
- 2021eko ekitaldiko soberakin erabilgarriak banatzea: % 10 Heziketako eta Sustapeneko Funtsera, % 15 Kooperatiba arteko Funtz Sozialera, % 25 kooperatiba-itzulkinetara eta % 50 Nahitaezko Erreserba Funtsera (aho batez).
- 2021eko ekitaldiko emaitzen banaketarekin eraturako Heziketako eta Sustapeneko Funtsetik % 15 bertan banatzea, % 17 banaketa orokorrerako uztea eta % 68 Mondragonen kooperatiba-erakundeak finantzatzeko eta Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Funtserako ekarpenetarako erabiltzea (aho batez).
- Bazkide berriek kapital sozialari egin beharreko ekarpenak eta sarrera-kuotak onestea (aho batez).
- 2022ko ekitaldirako entitatearen auditore gisa PricewaterhouseCoopers Auditores SL izendatzea berriro (aho batez).
- Estatutu Sozialetan honako artikulua berri hauek sartzea: 29. bis artikulua, *Bertaratzea eta boto telematikoa Batzar Nagusian*, eta 38. bis artikulua, *Bertaratzea eta boto telematikoa Kontseilu Errektorean*. Era berean, honako hauek aldatzea: 36. artikuluko Bat eta Bost apartatuak, *Kontseilu Errektorearen osaera*; 37. artikuluko Bat apartatua, *Ezintasunak eta bateraezintasunak*, eta 39. artikulua, *Kontseilarien ordainsaria* (aho batez).
- Kontseilu Errektoreko bi kide berritzea (aho batez).
- Kontseilu Errektorearen ordainsari-politika onestea (aho batez).

### B.4. Adieraz ezazu ia ekitaldian egindako batzar nagusietan edo pareko organoetan egon den gai-zerrendako punturik akziodunek onartu ez dutenik.

Gai-zerrendan ez da egon bazkideek onartu gabeko punturik.

**B.5.** Adieraz ezazu entitatearen webgunearen helbidea, eta gobernu korporatiboari buruzko informaziora nola iristen den.

Gobernu Korporatiboaren edukira iristeko, entitatearen webgune orokorrean —<https://www.laboralkutxa.eus>— edo webgune korporatiboan —<https://korporatiboa.laboralkutxa.com>— sartu behar da, eta «Gobernu korporatiboa eta ordainketa-politika» atalean klik egin.

**B.6.** Adieraz ezazu entitateak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikatuek, halakorik badago, bilerarik egin duten, txosten honek aipagai duen ekitaldian egindako bilerek zer xede izan duten eta zer erabaki nagusi hartu dituzten.

Ez da eratu entitateak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikaturik.

## C. SOZIETATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

### C.1. Administrazio-kontseilua edo -organoa

C.1.1. Esan ezazu zein diren administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehieneko eta gutxieneko kopuruak, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

Organoko kontseilarien/kideen gehieneko kopurua	15
Organoko kontseilarien/kideen gutxieneko kopurua	14
Batzarrak edo biltzarrak finkatutako organoko kontseilarien/kideen kopurua	14

C.1.2. Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau.

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Ordezkarria	Izendapenaren azken eguna
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	Lehendakaria	2019
RICARDO PÉREZ AGUADO	Idazkaria	2019
AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ	Kidea	2019
XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA	Kidea	2019
ELENA ZARRAGA BILBAO	Kidea	2019
MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ	Kidea	2019
EDORTA GIL SAGARDUY	Kidea	2020
BEATRIZ MAULEON SAINZ DE VICUÑA	Kidea	2020
AITOR SORIA ALONSO	Kidea	2020
IÑIGO LÓPEZ-CANO FERNANDEZ DE BETOÑO	Kidea	2021
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	Kidea	2021
ESTHER KORTA ERRAZKIN	Kidea	2021
NAGORE LARRABEITI LIBANO	Kidea	2022
JUAN JOSÉ ÁLVAREZ RUBIO	Kidea	2022

C.1.3. Aipa itzazu, dagokionean, entitatearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaileen, administratzaileen ordezkarien edo zuzendarien karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak:

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO SA	LEHENDAKARIA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO VIDA SA	LEHENDAKARIA

C.1.4. Bete ezazu taula hau administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten emakumezko kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta azken lau ekitaldietan izan duen bilakaerari buruzkoarekin ere:

	Emakumezko kontseilarien kopurua							
	2022ko ekitaldia		2021eko ekitaldia		2020ko ekitaldia		2019ko ekitaldia	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Administrazio Kontseilua	7	50,00	7	46,66	6	50,00	6	50,00
Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea	1	25,00	1	33,33	2	50,00	2	50,00
Izendapenen Batzordea	1	33,33	1	33,33	2	40,00	2	40,00
Ordainsarien Batzordea	3	100,00	3	75,00	2	40,00	2	40,00
Arrisku Batzordea	3	75,00	3	75,00	4	67,00	4	67,00

C.1.5. Esazu sozietateak baduen aniztasun-politikaren bat enpresaren administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organismoentzat, kontuan hartzen dituen, adibidez, adina, generoa, desgaitasuna eta prestakuntza nahiz esperientzia profesionala. Kontu Ikuskaritzari buruzko Legearen definizioaren arabera, entitate txiki eta ertainek genero-aniztasunari buruz ezarritako politiken berri eman beharko dute gutxienez.

- Bai  
 Ez  
 Politika partzialak

Erantzuna baiezkoa bada, azal itzazu aniztasun-politika hori, berorren helburuak, aplikatzeko neurriak eta modua, eta ekitaldian lortutako emaitzak. Aderazi egin beharko dira, halaber, administrazio-organismoak eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeek hartu dituzten neurriak, kontseilarien eta administratzaileen presentzia orekatua eta ugaria izan dadin.

Sozietateak ez badu aniztasun-politikarik erabiltzen, azaldu arrazoiak.

Iritzi independenteak eta erabaki sendoak sustatzeko askotariko ikuspuntuak eta esperientziak ekarriko dituen kolektibo bat lortzearen, entitateak aniztasunaren alorreko politiken aginduei egiten die men, administrazio-organoko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzeari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoari jarraikiz. Ildo horretatik, profil akademikoa eta profesionala, generoa eta adina hartzen ditu aintzat, Kontseilu Errektorearen Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

Aipatzekoa da 2022ko abenduaren 31n gainditu egin dela, beste urte batez, ordezkartzar txikiena duen generorako ezarritako gutxieneko ehunekoa. 2021eko ekitaldian, Batzar Nagusiak estatutu-aldaketa bat onartu zuen, Kontseilu Errektoreko kide-kopurua 14ra murrizteko. Aldaketa horrekin eta urte-amaierako egiturarekin, genero-parekotasuna berreskuratu du Kontseilu Errektoreak.

Era berean, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezkatzearen alorrean, Funtsezko Postuetarako Ondorengotza Plana du Caja Laboralak. Bertan, ordezkatzeko diren postu kritikoak, ibilbide profesionalak eta jatorri-profilak identifikatzen dira, eta identifikatutako pertsonen garapen profesionalerako planak eta postu bakoitzerako ondorengotza-planak ezarri. Funtsezko postuak (ondorengotza-plana izateko modukoak) eta postu horietakoak etorkizunean ordezkatzeko gaitasuna duten pertsonak identifikatzeko, hainbat aldagai hartzen dira aintzat: prestakuntza, esperientzia eta ezagutza, zuzendaritzako ibilbidea, errendimenduaren historia, gaitasun eta trebetasun pertsonalak, entitatearekiko konpromisoa, potentziala eta abar.

2022an, ez da aldaketarik egin zuzendaritza-taldean.

C.1.6. Bete ezazu administrazio-organoko kontseilari edo kideen ekitaldiko ordainsari agregatuari buruzko taula hau.

Ordainketaren kontzeptua	Mila eurokotan	
	Norbanakoa	Taldea
Ordainsari finkoa	142	
Ordainsari aldakorra	35	
Dietak		67
Beste ordainsari batzuk		
<b>GUZTIRA</b>	<b>177</b>	<b>67</b>

C.1.7. Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide ez diren goi-zuzendaritzako kide exekutiboak, eta adieraz ezazu ekitaldian horien alde sortutako ordainsarien kopuru osoa.

Izena edo izen soziala	Kargua
XABIER EGIBAR GAINZA	Zuzendari nagusia
OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA	Arriskuen Areako zuzendaria
IBON URGOITI URIOSTE	Negozio Garapenaren Areako zuzendaria
ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE	Finantzen Areako zuzendaria
NURIA AGUIRRE UNZUETA	Baliabideen Areako zuzendaria
SUSANA ANDRÉS GORGOJO	Mendebaldea Area Komertzialeko zuzendaria
JAVIER CORTAJARENA GOÑI	Ekia Area Komertzialeko zuzendaria
JOSEBA MIKEL MARURI HERNAEZ	Teknologia eta Analytics Areako zuzendaria
PABLO MOGELOS GARCIA	Seguros Lagun Aro SAko zuzendaria
<b>Goi-zuzendarien ordainsaria guztira (mila eurokotan)</b>	
	<b>1.311</b>

C.1.8. Esan ezazu batzordeko estatutuek edo araudiak administrazio-organoko kontseilari edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen duten ala ez.

- Bai  
 Ez

Gehieneko agintaldi-kopurua	5
-----------------------------	---

C.1.9. Adieraz ezazu administrazio-kontseilari edo -organoari formulatzeko aurkeztzen zaizkion urteko kontu individual eta bateratuak aurrez ziurtatuta dauden.

- Bai  
 Ez

Zehaztu, dagokionean, administrazio-kontseiluak edo -organoak formula ditzan entitatearen urteko kontu individual eta bateratuak ziurtatu ditu(zt)en pertsona(k).

Izena	Kargua
Daturik ez	

C.1.10. Azal ezazu, baldin badago, zer mekanismo duen administrazio-kontseiluak edo -organoak ezarrita, berak formulatutako kontu individual eta bateratuak auditoretza-txostenean salbuespenekin ez aurkezteko batzar nagusian edo pareko organoan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeko eginkizuna. Ildo beretik, haren eginkizuna da barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea ere.

C.1.11. Kontseiluko edo administrazio-organoko idazkariak kontseilari-izaera du?

Bai  
 Ez

C.1.12. Adieraz ezazu, baldin badago, zer mekanismo dagoen ezarrita kanpo-auditorearen, finantza-analisten, inbertsioko bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia bermatzeko, eta azaldu legezko aurreikuspenak nola ezarri diren praktikan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanak lotu eta euren independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa jasotzeko eginkizuna. Independentzia direla idatziz berresteko eskatzen zaie urtean behin. Zentzu horretan, kontu-auditoretzaren txostena egin aurretik, kanpo-auditorearen independentzia berresten duen txostena egin du Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak.

## C.2. Administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak

C.2.1. Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak.

Batzordearen izena	Kide-kopurua
IKUSKARITZAKO ETA ARAUDIA BETEARAZTEKO BATZORDEA	4
IZENDAPENEN BATZORDEA	3
ORDAINSARIEN BATZORDEA	3
ARRISKU BATZORDEA	4

C.2.2. Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak, horietako kideak eta partaide dituen kontseilari exekutibo, dominikal, independente eta kanpokoen proportzioa. Kapital-sozietatearen egitura juridikoa ez duten entitateek ez dute beteko kontseilariaren kategoria dagokion taulan, eta, testuaren atalean, kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, aintzat hartuta, batetik, beraien araubide juridikoa eta, bestetik, horiek nola betetzen dituzten ikuskaritza-batzordea eta izendapena nahiz ordainsariena eratzeko baldintzak.

Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
NAGORE LARRABEITI LIBANO	LEHENDAKARIA	INDEPENDENTEA
RICARDO PÉREZ AGUADO	KIDEA	EZ-EXEKUTIBOA
XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA	KIDEA	INDEPENDENTEA
JUAN JOSÉ ÁLVAREZ RUBIO	KIDEA	INDEPENDENTEA

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	% 75
Kanpoko beste kontseilari batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	13



Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatzeak eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (10. artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- a) Bere eskumeneko gaitan aztertzen dituen auzien inguruko informazioa ematea Batzar Nagusiari.
- b) Kontu-auditoreak edo auditoretza-sozietateak izendatzeko proposamenak Kontseilu Errektoreari aurkeztea, entitateari ezartzekoa den araudiarekin bat, gero Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkez diezazkion, horrek, egoki iritziz gero, onar ditzan.
- c) Honako hauek gainbegiratzea: sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasuna, barne-auditoretza (funtzionalki Batzordearen mende dagoena) eta arriskuak gestionatzeko sistemak. Era berean, kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin eztabaidatzea, auditoretza egitean barne-kontrolerako sisteman antzemandako ahulezia nabarmenez.
- d) Araututako informazio finantzarioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
- e) Kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanetan egotea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien eta kontu-auditoretzaren prozesuarekin zerikusia duten bestelakoen berri izateko eta batzordean aztertzeak. Era berean, kontu-auditoretzaren alorreko legerian eta arauetan aurreikusita dauden gainerako jakinarazpenak ere jasoko ditu. Dena den, kontu-auditoreak edo auditoretza-sozietateak urtean behin berretsi beharko diote (idatziz) beraiekin zuzenean edo zeharkako lotura duen entitatearekiko (edo entitateekiko) independenteak direla. Ildo beretik, auditore edo sozietateak nahiz beraiei atxikitako pertsonak edo entitateak loturadun beste entitate horiei emandako zerbitzu osagarri buruzko xehetasunak jakinarazi beharko dituzte, 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legeak, Kontu Auditoretzarenak, eta 537/2014 EB Erregelamenduak xedatutakoarekin bat.
- f) Urtean behin, kontu-ikuskaritzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-ikuskatzaileen edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko irizpena jasoko duen txostena argitaratzea. Txosten horretan, aurreko atalean aipatu diren zerbitzu osagarrien prestazioari buruzko iritzia jaso beharko da.
- g) Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.
- h) Aldez aurretik Kontseilu Errektoreari informazioa ematea, araudia betearaztearen esparruan dituen eskumeneko gai guztiei buruz, betiere araudietan, Estatutu Sozialetan eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduan aurreikusita badaude.
- i) Entitateari eragiten dioten Araudia Betearazteko politikak zehazten eta ebaluatzen laguntzea eta horretaz aholku ematea Kontseilu Errektoreari, politika horiek kudeatzeko ezarritako kontrol-prozedurari jarraikiz.
- j) Araudia Betearazteko funtzioa gainbegiratzea, hargatik eragotzi gabe eginkizun hori Kontseilu Errektoreak zuzenean betetzea.
- k) Araudia Betearazteko funtzioari dagozkion eta Kontseilu Errektorearen esku-hartzerik behar ez duten agiri operatiboak onestea (prozedurak eta bestelako eskuliburu operatiboak), bai eta alor horretako politiketako aldaketa ez-nabarmenak ere. Kontseilu Errektoreak onartu beharreko alor horretako politikei eta bestelako barne-arau batzuei dagokionez, Kontseilu Errektoreari aurkeztu aurretik aztertu behar ditu Batzordeak, betearazte-eta arautze-kulturarekin bat datozela bermatzearen.
- l) Araudia Betearazteko urteko programen funtzionamendua aldi behin ebaluatzea, eta haiek hobetzeko proposamenak egitea.
- m) Kontseilu Errektoreak agintzen edo baimentzen dion beste zeinahi eginkizun, Barne Ikuskaritzako eta/edo Araudia Betearazteko funtzioei dagozkienak.

Kontseilu Errektorearen Erregelamenduari arabera, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kide eskatuta. Kideek pertsonalki joan behar dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik. Batzordea baliozki eratzat joko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute, emandako botoen gehiengo soilz hartuko dira erabakiak eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Nagore Larrabeiti (batzordeburua), Xabier Sagarna eta Juan José Álvarez kontseilari independenteak dira (kide guztien % 75) eta Ricardo Pérez kontseilari ez-exekutibo da (kide guztien % 25). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean.

Hauek dira Ikuskaritza Batzordeak 2021ean zehar izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Entitatean ezarrita dagoen finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKSA) gainbegiratu eta ebaluatu du, bai eta argitaratutako finantza-informazioa prestatu eta aurkezteko prozesua ere, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiaztapen hauek dira nabarmenenak:
  - Entitateak egindako urteko kontu indibidual eta bateratuak eta dagozkion kudeaketa-txostenak berrikustea.
  - Espainiako Bankuari bidalitako finantzarako egoera-orri publiko bateratuak berrikustea.
  - Entitateak sei hilean behin argitaratzen duen merkaturako gardentasun-informazioa berrikustea.
  - Espainiako Bankuari bidalitako baliabide propioen aitortzea sei hilean behin berrikustea.
  - Finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKSA) gainbegiratzea, Barne Ikuskaritzako Departamentuak ezarritako berrikuspen-prozedurari jarraikiz.
  - Finantza-informazioa prestatzeko funtsezko prozesuak berrikustea, besteak beste, kreditu-arriskua narriatzeagatik galeren kalkulua berrikustea.

- Informazio ez-finantzarioaren egoera-orriaren lanketa gainbegiratu du.
- Entitatean ezarrita dagoen finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKs) gainbegiratu eta ebaluatu du, bai eta lotutako politikak, metodoak eta prozedurak ere, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiaztapen hauek dira nabarmenenak:
  - Kapitalaren eta likideziaren autoebaluazio-prozesua berrikustea.
  - Entitateak argitaratutako Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa berrikustea.
  - Recovery Plana egin eta aurkezteko prozesua berrikustea.
  - Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularraren 9. eranskinak eskatzen duen berrikuspen-prozedura.
  - Merkataritza-sareak *in situ* ikuskatzeko prozedura gainbegiratzea.
  - Kapital-zuritzeari aurrea hartzearen eta Terrorismoaren finantzaketaren (KZA eta TF) arloak berrikustea.
  - IKT arriskuen eta informazioaren segurtasunari buruzko gobernantza, sistemak eta prozesuak gainbegiratzea.
- Barne-ikuskaritzako funtzioa gainbegiratu eta ebaluatu du, haren independentzia eta eraginkortasuna zainduz eta Barne Ikuskaritzako Departamentuak egindako jardueren gaineko informazioa jasoz aldiaren behin. Barne Ikuskaritzako urteko planari onespena eman eta jarraipena egin dio.
- Erabaki du PricewaterhouseCoopers Auditores SL kontu-auditorearen jarduna ebaluatu ostean kanpo-auditoretzako kontratua luza dezala proposatzea Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiaren esanetara jartzeko.
- Kanpo-auditoretzaren emaitzari jarraipena egin dio, kanpo-auditorearekin bilerak egin ditu eta garrantzi bereziko zat jotako alderdiak aztertu eta berrikusi ditu.
- Kanpo-auditoreen independentzia berresten duen iritzia eman du, kontu-auditoretzaren txostenak argitaratu aurretik.
- Entitateak edo taldeko entitateek kanpo-auditorearekin kontratatzea proposatzen zuen auditoriaz gaineko zerbitzuak ebaluatu ditu eta, zegokionean, onetsi.
- 2024ko, 2025eko eta 2026ko ekitaldietarako kontu-auditorea izendatzeko prozesua gainbegiratu du, eta kontu-auditorea izendatzeko gomendioa egin dezala proposatu dio Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiaren esanetara jartzeko. Gomendio horretan bi aukera hartu dira aitzat, eta haietako bat hobetsi du batzordeak.

Esan ezazu Ikuskaritza Batzordeko zer kontseilari izendatu diren beraien kontabilitateko, auditoretzako edo bietako ezagutzak eta esperientzia aintzat hartuta, eta adierazi batzorde horretako lehendakaria zer datatan izendatu den.

Esperientziadun kontseilarien izenak	RICARDO PÉREZ AGUADO
Lehendakaria izendatzeko data	2019-01-04

Izendapenen Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	LEHENDAKARIA	INDEPENDENTEA
IÑIGO LÓPEZ-CANO FERNANDEZ DE BETOÑO	KIDEA	EZ-EXEKUTIBOA
XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA	KIDEA	INDEPENDENTEA

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	% 67
Kanpoko beste kontseilari batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	8

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatze eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Izendapenen Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11. b artikuluan) daude jasota, 2022ko irailean eguneratu ostean; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak hornitzeko hautagaiak bilatu eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizunak eta gaitasunak deskribatzea, bai eta lanpostua betetzeko aurreikusitako arduraldia balioztatzea ere.
- Aldian behin (urtean behin, gutxienez), Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, eraketa eta jarduketa aztertzea eta egin beharreko aldaketak gomendatzea.
- Aldian behin (urtean behin, gutxienez), Kontseilu Errektorearen eta bertako kideen egokitasuna aztertzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian behin, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika berrikustea eta gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatze prozeduraren eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
- Kontseilu Errektorean ordezkariarik txikiena duen sexuarentzako ordezkari-taldea helburua finkatzea eta helburu horretara iristeko orientabideak lantzea.
- Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Erregelamenduaren arabera, Izendapenen Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

2022an osaera berari eutsi dio Izendapenen Batzordeak.

2022-12-31n batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Itziar Elgarresta (batzordeburua) eta Xabier Sagarna kontseilari independenteak dira (kide guztien % 67) eta Iñigo López-Cano kontseilari ez-exekutiboa (kide guztien % 33). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean. Kontseilu Errektoreko lehendakaria dagoeneko ez da Izendapenen Batzordeko kidea.

Hauek dira Izendapenen Batzordeak 2022an izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna etengabe aztertzea eta Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea.
- Goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezteko Kontseilu Errektorearen politika berrikustea.
- Izendapen-proposamenak egitea, dagozkien egokitasun-azterketak eginda, dagokionean.
- Kontseilu Errektorearen Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politika eguneratzea.
- Kontseilari berriak izendatzeko hauteskunde-prozesua koordinatzea.
- Kontseilu Errektorerako hautagaien egokitasuna ebaluatu eta aztertzea, eta Kontseilu Errektorerako gomendioen txostena egitea.
- Berriz hautatzeko aurkezten diren kontseilarien jardura ebaluatzea.
- Izendapenak eta antolakuntza-egitura berriak onartzea.
- Kontseilu Errektorerako prestakuntza-ekintzak proposatzea.

Ordainsarien Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
MARÍA ESTHER KORTA ERRAZKIN	LEHENDAKARIA	INDEPENDENTEA
BEATRIZ MAULEON SAINZ DE VICUÑA	KIDEA	INDEPENDENTEA
AINHOA GALLASTEGI MARTINEZ	KIDEA	EZ-EXEKUTIBOA

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	% 67
Kanpoko beste kontseilari batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	7

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, eta deskribatu berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Ordainsarien Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.c artikuluan) daude jasota, 2022ko irailean eguneratu ostean; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreak eta Batzar Nagusiak ordainsariei buruz hartu beharreko erabakiak prestatzea, bereziki Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta identifikaturiko beste langile batzuen ordainsariei dagokienez.
- Kontseilu Errektoreari laguntza eta aholkua eskaintzea entitatearen ordainsari-politika zehazteko, eta generoari dagokionez politika hori inpartziala izan dadin eta askotariko generotako langileen tratu-berdintasuna babes dezan.
- Kontseilu Errektoreari laguntzea ordainsari-politika, -jardunbideak eta -prozesuak kontrolatzen, eta ordainsari-politika betetzen dela bermatzen.
- Indarrean den ordainsari-politika egunean dagoela egiaztatzea eta beharrezko aldaketak proposatzea.
- Ordainsarien arloko kanpoko aholkularien izendapena berrikustea, Kontseilu Errektoreak aholkularitza edo laguntza jasotzeko halakorik kontratatzea erabakitzen badu.
- Ordainsari-politikei eta -jardunbideei buruz bazkideei ematen zaien informazioa egokia dela bermatzea, bereziki ordainketa finkoaren eta aldakorren arteko ratioa handitzeko proposamenari dagokionez.
- Indarrean jarritako mekanismoak eta sistemak ebaluatzea, ordainsari-sistemak era guztietako arriskuak, likidezia- eta kapital-mailak kontuan hartzen dituela bermatzeko; ordainsari-politika orokorrak arriskuen gestio egoki eta eraginkorra sustatu eta horrekin koherentea dela ziurtatzeko, eta, era berean, entitatearen negozio-estrategiarekin, helburuekin, kultura eta balio korporatiboekin, arrisku-kulturarekin eta epe luzeko interesekin bat datorrela egiaztatzeko.
- Emaizta-helburuen lorpena eta arriskuaren ex-post doikuntza-beharrak ebaluatzea, ordainsariak murrizteko eta jada ordaindutakoak berreskuratzeko klausulak aplikatzea barne.
- Askotariko egoera posibleak berrikustea, barneko eta kanpoko gertakarien aurrean ordainsari-politikei eta -jardunbideek nola erreakzionatzen duten aztertzeke; arriskua ematea eta ex-ante doikuntza zehazteko erabilitako irizpideen atzera begirako probak egitea, benetako arrisku-emaizetan oinarrituta.

Erregelamenduaren arabera, Ordainsarien Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

2022an osaera berari eutsi dio Ordainsari Batzordeak.

2022-12-31n batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Esther Korta (batzordeburua) eta Beatriz Mauleón Sainz de Vicuña kontseilari independenteak dira (kide guztien % 67), eta Ainhoa Gallastegui kontseilari ez-exekutiboa da (kide guztien % 33). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean. Kontseilu Errektoreko lehendakaria dagoeneko ez da Ordainsarien Batzordeko kidea.

Hauk dira Ordainsarien Batzordeak 2022an izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Errektoreari ordainsari-proposamen ezberdinen berri ematea.
- Identifikaturiko kolektiboari 2021eko ekitaldiko ordainketa aldakor indibiduala (OAIa) aplikatzeko proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboarentzat 2022ko OAIaren helburuak zehazteko proposatzea.
- 2022ko ekitaldirako ordainketa aldakor indibidualaren araudia proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboaren osaera zehaztea eta VIII. eranskina aurkeztea.
- Ordainsari-politikaren urteko txostena egitea, Kontseilu Errektoreak onesteko.

Arrisku Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
ELENA ZARRAGA BILBAO	LEHENDAKARIA	INDEPENDENTEA
NAGORE LARRABEITI LIBANO	KIDEA	INDEPENDENTEA
EDORTA GIL SAGARDUY	KIDEA	EZ-EXEKUTIBOA
MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ	KIDEA	INDEPENDENTEA

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	% 75
Kanpoko beste kontseilari batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	9

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, eta deskribatu berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Arrisku Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.bis artikuluan) daude jasota; hauk dira:

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen egungo eta etorkizuneko arriskuarekiko joera orokorrari eta arlo horretarako estrategiari buruz, eta laguntzea estrategia hori aplikatzen eta entitateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen arriskuak gestionatu, gainbegiratu eta murrizteko politika zehatzak zaintzen.
- Egiaztatzea bezeroei eskaintako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak aintzat hartzen dituela entitatearen enpresa-eredua eta arrisku-estrategia. Bestela, hori ordezkatzeko plan bat aurkeztea Kontseilu Errektoreari.
- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen arrisku garrantzitsu guztiak gestionatu eta gainbegiratzeko.
- Kontseilu Errektoreari estres-testaren eta kapital-plangintzaren inguruko aholkuak ematea, arriskuei dagokienez.
- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasuna bermatzeko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.
- Kontseilu Errektorearen eta erakundearen artean arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela ziurtatzea, eta Batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak arriskuei buruz jaso beharreko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea, Kontseilu Errektorearekin batera.
- Aktiboen balioztapena, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera eta arriskuei buruzko barne-ereduak gainbegiratzeko.
- Arrazoizko ordainketa-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Aztertzea ea ordainketa-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak aintzat hartzen dituen arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta aukera.

Erregelamenduaren arabera, Arrisku Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu edo beste edozein kidek eskatzen badu. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Elena Zárraga (batzordeburua), Nagore Larrabeiti eta María Laura Rodríguez kontseilari independenteak dira (kide guztien % 75) eta Edorta Gil kontseilari ez-exekutiboa da (kide guztien % 25). Ez dago kontseilari exekutiborik batzordean.

2022ko jarduerari dagokionez, Arrisku Batzordeak honako hauek egin ditu bere eginkizunen barruan:

- Arrisku guztien segimenduaz eta kontrolaz arduratu, Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBaren) hiruhilekoko deskarguen bidez.
- Arriskuen gaineko eskuliburu eta politiketako aldaketak aztertu eta balidatu.
- Arrisku-mota bakoitzerako muga eta eskumenen eguneratzea aztertu eta balidatu —Seguros Lagun Aro barne hartuta—.
- 2021eko Kapitalaren Autoebaluazio Txostena (KATa) aztertu eta balidatu.
- Recovery Plana aztertu eta balidatu.
- Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAFa), grinaren urteko deklarazioa (RASa) —jarraipena eginez— eta *stress testing*aren metodologia eta agertokia aztertu eta balidatu.
- Formalizatutako eragiketen prezioek eragiketaren kostua gainditzen dutela kontrolatzeko eragiketa aztertu eta balidatu, IX. eranskinari jarraikiz.
- Ordainsari-politikaren proposamena aztertu eta baliozkotu.
- Plan Estrategikoa aztertu eta balidatu, arriskuei dagokienez.
- IRB ereduak ezartzeko plan sekuentziala (*Roll-out plana*) aztertu eta baliozkotu.

#### D. ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta akziodunen, bazkide kooperatibisten nahiz jabetza-eskubideen titularren edota entitatean pareko izaera duen beste edozeinen artean egindako eragiketak.

Akziodun edo bazkiderik garrantzitsuenaren izena edo izen soziala	Taldeko sozietatearen edo entitatearen izena edo izen soziala	Harremanaren izaera	Eragiketa-mota	Zenbatekoa (mila eurokotan)
Daturik ez				

D.2. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta administratzaileen nahiz administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.

Administratzaileen edo zuzendarien izena edo izen soziala	Alderdi lotuaren izena edo izen soziala	Lotura	Eragiketaren izaera	Zenbatekoa (mila eurokotan)
Daturik ez				

D.3. Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.

Taldeko entitatearen izena edo izen soziala	Eragiketaren azalpen laburra	Zenbatekoa (mila eurokotan)
Daturik ez		

D.4. Zehaztu itzazu zer mekanismo dauden ezarrita entitatearen edo berorren taldearen eta kontseilarien edo administrazio-organoko kideen nahiz zuzendarien arteko interes-gatazkak antzeman, zehaztu eta konpontzeko.

Hainbat bazkideren edo hirugarrenen mesedetan Caja Laboralaren interesak urratzen dituzten Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioak aurkaratzeko aukera eskaintzen du legeak, eta aplikagarriak dira, halaber, gerta litezkeen interes-gatazken inguruko arau berezi hauek:

a) Arrisku-politikari buruzko eskuliburuaren 8. atalari jarraikiz, eta irizpide orokor gisa, Kontseilu Errektoreko kide guztiek, zuzendari nagusiak, horien senitartekoei (bigarren mailaraino) eta lotutako sozietateek planteatutako arrisku-eragiketa guztiek berrespen zentralizatua beharko dute, eta Kontseilu Errektoreak onartu eta berretsi beharko ditu. Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularren, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoaren, 35. arauan —3/2022 Zirkularrak aldatu zuen— ezarritako muga eta baldintzak gainditzen dituzten kasuetarako, baimena eskatu beharko zaio Espainiako Bankuari, eta, bestela, jakinarazi egin beharko dira berehala.

b) Aurreko a) letran zehaztutako arrisku-eragiketen inguruko Eragiketa Batzorde Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioetarako, geroago aipatzen diren baldintzak bete beharko dira. Hauek dira baldintzok:

- Akordioa isilpeko bozketaz hartu beharko da, gaia gai-zerrendan behar bezain argi sartu ostean.
- Kontseilari guztien bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, erabakia hartzeko. Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo aipatutako senitartekoren bat bada, interes-gatazka dagoela ulertuko da eta pertsona horrek ezin izango du bozketan parte hartu.
- Isilpeko bozketa egin eta emaitza aldarrikatutakoan, egokia izango da hartutako erabakiarekiko zalantzak edo desadostasunak jasotzea.

Baldintza horiek berak bete behar dira Caja Laboralak beste entitate batzuekin dituen betebeharrak edo eskubideak eratu, eten, aldatu, berritu edo iraungi behar direnean ere, kargu haiek edo beraien senitartekoak entitateotan nagusiak, kontseilariak, administratzaileak, goi-mailako zuzendariak, aholkulariak edo oinarritzako kideak direnean eta kapitalean % 5eko edo gehiagoko partaidetza dutenean.

Kontseilariak izendatzeko, egokitasun-eskuliburuan ezarritakoa bete behar da; hau da, aitorten bat sinatu behar da, Caja Laboralaren interesekiko etengabeko edo egiturazko gatazkarik ez dagoela adierazteko, ezinbestekoa baita kontseilariaren egokitasuna bermatzeko. Egoera hori egiaztatu egin behar da urtean behin; dena den, egokitasunari eragin diezaioketen edozein egoera gertatzen bada, kontseilaria arduratuko da Caja Laboralari berehala ezagutarazteaz, eta bera izango da ez jakinaraztearen edo berandu jakinaraztearen ondorioz entitateak jasaten dituen kalteen erantzulea.

## E. ARRISKUEN KONTROL ETA GESTIO SISTEMAK

### E.1. Azal ezazu entitatearen Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistemaren irismena.

Finantza-arriskuen Gestio Sistemak funtzionamendu integrala du, eta Arriskuen Arean zentralizatuta dago kreditu-arrisku tradizionala onartu, jarraipena egin eta berreskuratzearen erantzukizuna, bai eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketen arriskuak neurtu eta kontrolatzeko lanak ere.

Finantza-arrisku guztiak modu zentralizatuan kudeatzen dira, eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordea (hilean behin bilduta) eta, eragiketa-arriskuaren kasuan, Eragiketa Arriskuaren Batzordea (hiru hilean behin bilduta) arduratzen dira horretaz. Salbuespenak dira altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak, berariaz Altxortegi Departamentuan eskuordetzen baitira, eta kreditu-arriskua, bulegoie edo Arriskuen Areari dagozkion aginpideetan.

Hiru hilean behin gutxienez, Eragiketa Arriskuaren Batzordeak arrisku guztien kontrolari buruzko informazioa helarazten die Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari.

### E.2. Azal ezazu entitatean zein organo arduratzen diren Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistema sortu eta betearzteaz.

Kontseilu Errektorea. Administrazio-organoa gorena da, eta entitateak bere gain hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken erantzulea. Bere eginkizunak aurrera eramateko, Kontseilu Errektoreko kidez osatuta egoten den Arrisku Batzordearen laguntza izaten du, eta Arriskuen Batzorde Nagusian ere hartzen du parte. Arriskuen kontrol zorrotza eta deskargu sistematikoa egiteko eskatzen dio Eragiketa Arriskuaren Batzordeari.

Zuzendaritza Nagusia. Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, arrisku-politikak ezartzeaz arduratzen da. Arriskuen eginkizuna banatu egin du gestio komertzialaren eta arriskuak hartzearen artean.

Eragiketa Arriskuaren Batzordeko (EABko) zuzendariak arrisku material guztien kontrolari eta segimenduari buruzko informazioa helarazten die, hiru hilean behin, Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari, arreta berezia jarriz ezarritako mugen eta prozeduren betetze-mailari.

Aktiboen eta Pasiboen Batzordea. Interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta kredituaren arriskua Kontseilu Errektoreak ezarritako mugen barruan gestionatzeko organoa da. Eragiketa Arriskuaren Batzordeak hilean behin sortzen du arriskuen jarraipenari buruzko informazioa, eta batzorde horretan hartzen dira likideziaren, interes-tasaren eta merkatuaren arriskuei buruzko erabakirik garrantzitsuenak.

Eragiketa Arriskuaren Batzordea. Eragiketa-arriskua kontrolatzeko organoa da. Hiru hilean behin ematen du eragiketa-arriskuaren jarraipenari buruzko informazioa.

Ospe Arriskuaren Batzordea. Ospe-arriskua kontrolatzen duen organoa da. Hiru hilean behin ematen du ospe-arriskuaren jarraipenerako adierazle sintetikoari buruzko informazioa.

Arriskuen Area. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeaz, jarraitzeaz eta berreskuratzeaz arduratzen da, eta kreditu-arriskuaren barruko ereduak eraiki eta mantentzeaz, bai eta likideziaren, interes-tasaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz ere.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua. Arrisku Batzordearen mende dago. Finantza- eta eragiketa-arrisku guztien ikuspegi orokorra ematen du, berak neurtu eta kontrolatzen baititu guztiak. Horrela, bada, departamentu hori arduratzen da kreditu-arriskua onartzeko eta jarraipena egiteko eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko barruko ereduak sortzeaz. Aktiboen eta Pasiboen Batzordea, Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea informatzen ditu.

Arriskuen Gestioaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskua gestionatzeaz arduratzen da: arriskua onartzeaz, jarraipena egiteaz eta egoera irregularrak adiskidantzazko eta auzi-aurreko faseetan berreskuratzeaz. Kobraezinak berresten hartzen du parte, eta zenbateko jakin baterainoko aginpidea du.

Aholkularitza Juridikoaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Arrisku-eragiketei laguntza eta estaldura dokumental juridikoa ematen die, eta merkataritza-sareko auzien gestioari ere bai.

Altxortegiaren eta Kapital Merkatuaren Area. Finantza-erakundeekiko eta errenta finko pribatuarekiko kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakien ondoriozko posizioak gestionatzen ditu.

Araudia Betearzteko Departamentua. Araudia betearzteari lotutako alderdiak kontrolatzeaz eta jarraitzeaz arduratzen da. Entitateko area eta departamentuak koordinatzen ditu.

Bulego-sarea. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea da, eskuordetuta dituen ahalordeez mugatua; horiek entitatearen arrisku-politika osatzen duten scoringaren/ratingaren, alerten eta eskumenen mailen araberakoak dira. Arriskua onartzeko prozesuak Txikizkako Sarearen aginpideak gainditzen baditu, Arriskuen Areak berretsi beharko du.

Barne Ikuskaritza. Aseguratzeko eta kontsultatzeko eginkizun independente eta objektiboa du. Ikuspegi sistematiko eta diziplinatua eskaintzen du, arriskuen gestioa, kontrola eta gobernamentuko prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzeko.



### E.3. Aipa itzazu negozio-helburuetan eragin dezaketen arrisku nagusiak.

Partikular eta enpresekiko negozio tradizionalako kreditu-arriskua (kontzentrazio-arriskua barne), egiturazko interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak (arrisku subiranoa eta kontrako alderdiaren, herrialdearen, kontzentrazioaren eta merkatuaren arriskuak), eragiketa-arriskua, arautze-arriskua, ospe-arriskua, IGG arriskuak (ingurumenarena, gizartearena eta gobernantzararena), arrisku teknologikoa eta negozio-arriskua.

### E.4. Adieraz ezazu entitateak baduen arriskuarekiko tolerantzia-mailarik.

Kontseilu Errektoreak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAFa) erabiltzen du, batik bat, helburu estrategikoak lortzeko bere gain har dezakeen arrisku-mota eta -maila ezarri, gestionatu eta kontrolatzeko. RAFari esker, entitatearen estrategia finkatzen duten pertsonak kontzientzia osoz onartzen dituzte estrategia horri dagozkion arriskuak.

Gobernantzari dagokionez, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua arduratzen da RAFaren inguruko guztiak gestionatzeaz, beharrak aurkitzeaz, tartean diren area guztiak koordinatzeaz eta Aktiboan eta Pasiboan Batzordeari/Arrisku Batzordeari/Kontseilu Errektoreari proposamenak aurkezteaz. APBk eta Arrisku Batzordeak funtsezko eginkizuna dute proposamenak aztertu eta gainbegiratzeko, onetsi dezan Kontseilu Errektorerari bideratu aurretik.

Arriskuarekiko grina ezartzeko, arriskuak bereganatzeko gaitasuna hartzen du kontuan entitateak, eta alderdi hauek begiratzeko dituzte ere:

- Entitateak arriskuak bereganatzeko duen gaitasun finantzarioa (kapitala eta likidezia).
- Negozioaren testuingurua: egoera makroekonomikoa, arautze-arriskuak...
- Entitatearen arrisku-kultura.
- Arrisku-mota bakoitzak berezkoa duen arriskua.
- Arrisku-mota bakoitza bereganatzeko prestakuntza-maila eta trebetasuna.

RAFak metrika-egitura bat ezartzen du, errentagarritasunaren, kaudimenaren, likidezian eta entitateak gestionatzen dituen arrisku-moten inguruan. Lehen mailan, funtsezko adierazleak daude, eta, bigarren mailan, lehenengokoak garatu edo osatzen dituztenak. Lehen mailako dimentsioen artean sartzen dira errentagarritasuna, kaudimena eta likidezia, dimentsio horien inguruko CORE adierazleak lehen mailan, alegia. Metrika horiei guztiei helburuak esleitzen zaizkie, bai eta behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ere, entitateak bere gain har dezakeen arrisku-maila, hau da arriskuarekiko abertsioa, zehazteko.

Bere helburu estrategikoak lortzeko, arrisku-profil ertain-txikian jardun nahi du entitateak. Arriskuarekiko Grinaren Deklarazioan (RASen) zehazten da profila. Arrisku-politika zuzenarekin koherenteak diren behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ezartzen ditu RASak, entitateari estres-egoeretan ere kapitalizazio- eta likidezia-maila lasaietan eusteko asmoarekin. Entitateak jarraipena egiten die adierazle horiei, eta jarduketako-prozedura bat du ezarri atalaseak gainditzen direnerako.

### E.5. Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

Interes-tasaren arriskuari dagokionez, inoiz ez da gaitortu Kontseilu Errektoreak ezarritako duen eta APBk kontrolatzen duen muga.

Merkatu-arriskuarekin, soberakoak bat-batean sortutakoak dira, hau da, mugak murriztearen ondoriozkoak, ez posizioa handitzeak eragindakoak. Kasu horietan, kontrol-sistemek egoki funtzionatu dute. ABPko soberako horien berri izan du, eta posizioari eutsi ala ez erabaki du.

Likidezia-arriskuaren alorrean ez da tentsio-egoerarik sortu. Entitatearen likidezian jarraipen sistematikoari, aurreikuspenekiko desbideratzeen azterketari eta hilean behin eguneratutako finantzaketa-planari esker, denbora nahikoz aurreikus daitezke epe ertainera egon litezkeen kontrako inpaktuak, eta aukera dago behar diren neurri zuzentzaileak garaitzeko.

Kreditu-arriskuari eta partikularren eta enpresen segmentuetako eragiketei gagozkiola, kreditu-hartzaile batekiko arriskuak estamentu bateko eskudantziak gainditzen dituen, goragoko eskudantziak dituen hurrengo estamentura bideratzen da irizpena. Finantza-erakundeekiko eta korporazio handiekiko eragiketetan, entitatearen arriskuaren gestioaren esparru barruan gauzatu da jarduerak. Esan beharra dago araudiak arrisku handietarako finkatutakoak baino muga nabarmen txikiagoak dituela ezarritako entitateak.

Eragiketa-arriskuan, berriz, entitatearen jardueraren ondorioz nahitaez sortzen diren eragiketa-galerak txikitu egin dira, atal kualitatiboan ezarritako dauden kontrolei esker. Galera ez-errepikariak identifikatu ostean, entitateak ekintza-planak ezartzen ditu, horiek berriro gerta ez daitezkeen, eta, dagokionean, etorkizuneko beharrei erantzuteko hornidurak egiten ditu.

Ospe-arriskuari dagokionez, ez da gertatu publizitate negatibo nabarmena sortu duen egoera berririk.

### E.6. Azal itzazu, batetik, entitatearen arrisku nagusiak gainbegiratzeko eta horiei erantzuteko planak eta, bestetik, entitateak zer prozedura erabili duen administrazio-kontseiluak erroka berriei erantzuten diela bermatzeko.

Hiru hilean behin, arrisku-mota guztien bilakaerari eta, bereziki, RASaren adierazleei buruzko argibideak ematen dizkie Eragiketa Arriskuaren Batzordeak Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari. Adierazle horietakoren bat eremu anbar edo gorrian sartzen bada, Arriskuarekiko Grinaren Esparruan jasota dagoen prozedura aktibatzen da. Besteak beste, ezartzen du epe laburrean Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea jakinaren gainean jarri behar direla, atalasea zentzuzko larritasunez gainditu den aintzat hartuta. Horiek ekintza-plan bat eskatu ahal izango dute, adierazlea berriro eremu berdera itzularazteko.

Bestalde, Barne Ikuskaritzak zehazten du entitatearen arriskuak barruan nola gainbegiratu. Arriskuaren gestio- eta kontrol-prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzea da haren zeregina.

## F. ARRISKUEN KONTROL ETA GESTIOKO BARNE-SISTEMAK, FINANTZA-INFORMAZIOA EMATEKO PROZESUARI (FIBKS-ARI) DAGOKIONEZ

Azal itzazu arriskuak kontrolatzeko eta gestionatzeko sistemak osatzen dituzten mekanismoak, finantza-informazioa emateko prozesuari (FIBKSari) dagokionez.

### F.1. Entitatearen kontrolaren arloa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.1.1. Zer organok edo funtziok dituen ardura hauek: (i) FIBKS egoki eta eraginkor bat izatea, (ii) ezartzea eta (iii) gainbegiratzea.

Caja Laboralak barne-kontrolako mekanismoak ditu ezarrita, entitateari buruz eta bere taldeari buruz merkatuetan argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia dela bermatzeko. Prozesu hori indartu egin zen 2014ko ekitaldian, Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistema —aurrerantzean FIBKS— ezartzearen bidez.

Caja Laboralaren Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen 3.6 - Informazioaren fidagarritasuna atalean, gobernu-organismoak eta horiek FIBKSaren alorrean dituzten zereginak daude jasota:

-Caja Laboraleko Kontseilu Errektorea arduratzen da FIBKS egokia eta eraginkorra ezarri, mantendu eta ziurtatzeaz, eta merkatuan entitateari nahiz beraren taldeari buruz argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia izango dela kontrolatu eta bermatzeaz.

-Zuzendaritza Kontseiluaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea. Helburu horrekin, nahikoa giza baliabidez eta baliabide materialez hornituko du entitatea, eta finantza-informazioa prestatzearen arduradunei beharrezko prestakuntza eskainiko die, dagozkien zereginak bete ditzaten.

Honako hauek dira, besteak beste, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen eginkizunak:

- Honako hauek gainbegiratzea: sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasuna, barne-auditoretza (funtzionalki batzordearen mende dagoena) eta arriskuak gestionatzeko sistemak. Era berean, kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin eztabaidatzea, auditoretza egitean barne-kontrolerako sisteman antzemandako ahulezia nabarmenez.
- Araututako informazio finantzarioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

Barne Ikuskaritzak duen urteko plan batean, Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistemaren (FIBKSaren) esparruan garatutako jarduerak gainbegiratzen ditu. Horren arabera, txostena egiten du, jarduera horiek ebaluatzeko, dagokionean aurkikuntza garrantzitsuak identifikatzeko eta aurkitutako ahuleziak arintzeko gomendioak emateko.

Azkenik, Finantzen Areako zuzendaritzaren mendeko Plangintza Departamentuak arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak diseinatzen eta ezartzen laguntzen du, batez ere merkatuetara igortzen den finantza-informazioa prestatu, aurkeztu eta osatzeko prozesuari dagokionez.

F.1.2. Elementu hauek badauden, batez ere finantza-informazioa sortzeko prozesuari dagokionez.

- Honako hauek arduratzen diren departamentu edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz; (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.

Erakundearen egitura diseinatu eta aztertzea Antolamendu Departamentuari dagokio, eta baita lan horretarako area bakoitzak dituen baliabide-premiak aztertzea eta berrikustea ere. Berrikuspen hori antolamendu-egitura egokitzeko premia sortzen denean egiten da zerbitzu zentraletako area eta departamentuetan, eta, bertan, ez da beharrezko plantilla erabakitzen soilik, unitate bakoitzaren egitura ere balidatzen da.

Halaber, bulegoen sare komertzialean bulego bakoitzaren lan-karga neurtzen da, hilean behin eta berariaz diseinatutako aplikazio informatiko bat erabiliz. Informazio hori Zuzendaritza Nagusiari, Pertsonen Zuzendaritzari —giza baliabideak— eta Zuzendaritza Komertzialei helarazten zaie, baliabideen gainean beharrezko doikuntzak egin ahal izateko.

Bestalde, Antolamendu Departamentua arduratzen da jarduketa-arlo bakoitzaren erantzukizun- eta aginte-ildoak zehazteaz. Jarduketa-arlo bakoitzean egingo diren zeregin eta lanak ere departamentu horrek zehazten ditu, eta area bakoitzaren gordailuan argitaratu.

2015ean, Antolamenduaren eskuliburua onetsi genuen, entitateko eginkizunetarako gordailu bakarra, eta, 2016an, langile guztien eskura dagoen intranet korporatiboan argitaratu genuen, entitatearen organigrama orokorrarekin batera.

- Jokabide-kodea, onespren-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (adieraziz badagoen eragiketa-erregistroari eta finantza-informazioaren prestakuntzari buruzko berariazko aipamenik), ez-betetzeko organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeko.

Entitateak Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea du. Berorren azken eguneratzea 2019ko otsailean onartu zuen Kontseilu Errektoreak.

Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeak finantza-informazioaren fidagarritasunean aintzat hartu beharreko alderdiak ditu jasota bere 3.6 atalean; hauek nabarmentzen dira:

-Caja Laboralak bere finantzeta egoera-orriek eta horietan eragin nabarmena izan dezaketengatik buruzko finantza-informazio fidagarri, zehatz, osatu eta egokia emateko erantzukizuna du.

-Finantza-informazio indarreko balioztapen-printzipio eta -arauen arabera osatzen dela bermatzeko taldean ezarrita dauden prozedurez gain, lan-bazkide eta enplegatu guztiak arretaz bete behar dituzte informazioa erregistratu eta tratatzeko eginkizunak, informazio hori erabiliko baita taldearen finantza-informazio publiko osatzeko.

-Lan-bazkideak eta enplegatuak arduratzen dira informazioaren fidagarritasunaz, zehaztasunaz, osotasunaz eta eguneratzeaz. Dena den, taldeko area jakin batzuek ere berariaz esleituta dituzte zenbait erantzukizun, informazioaren osotasunaren eta erabilgarritasunaren, erabilitako erregistro-motetan sartutako datuen eta beren egitekoen barruan sortzen duten informazioaren gainean.

-Erantzukizun horren ezarpena bereziki garrantzitsua da, taldearen finantzeta egoera-orriak egiteko behar diren datu eta txostenei dagokienez. Izan ere, beharrezkoa da horiek egoki erregistratu eta interpretatzea, kontabilitateko saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagokion balioztapen-irizpideak egoki ezartzen direla bermatzeko.

2015eko ekainean, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua eta dagokion Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika onetsi zituen Caja Laboralak —2022ko urtarrilean eta azaroan eguneratu ziren, hurrenez hurren—, eta, horrela, entitateak garbi utzi zuen arauak eta estandar etikoak errespetatzeko borondatea. Asmo horrekin, gainera, arlo penalean bete beharreko printzipioen esparrua ere finkatu zuen. Eskuliburu horren arabera, Etika Batzordeari dagokio bai Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean ezarritako printzipioak, oro har, zaintzea, bai ikuspegi penaltik legez kanpokoak izan daitezkeen jokabideak jagotea.

Bestalde, balore-merkatuaren Jokabideen Barne Araudia ere badu Caja Laboralak. Azken eguneratzea 2018ko maiatzean onetsi zuen Kontseilu Errektoreak, eta hauei aplikatzen zaie: entitateko Kontseilu Errektoreko kideei, taldeko sozietateen administrazio-kontseiluetako kideei eta entitateko balore-merkatuaren alorrean gauzatzen dituen jardura eta zerbitzuekin zuzenean edo bereziki lotutako pertsonen (zuzendariak izan ala ez) edo kuxari buruzko informazio garrantzitsua maiz edo ohituraz eskura izaten dutenei.

- Salaketen Kanala, Ikuskaritza Batzordea jakinaren gainean jartzeko, finantzeta eta kontabilitateko gorabeherak gertatzen direnean eta erakundearen jokabide-kodea betetzen ez bada edo jardura irregularrak sumatzen badira; izaera konfidentzialekoak diren ere jakinarazi beharko da.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua onetsi zela eta, Salaketen Kanala Etika Batzordeak gestionatzen du.

Salaketen Kanal hori eskura dute taldea osatzen duten sozietateetako bazkide, enplegatu eta administratzaile guztiak. Haren funtzionamenduaren araubidea entitateko Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan dago jasota. Kanal horren bidez, Etika Batzordea jakinaren gainean jartzen da, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea edo Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika betetzen ez direnean, indarreko legeriaren eta barne-araudiaren aurkako eragiketak eta portaerak daudenean eta garrantzia izan lezaketen irregulartasunak antzematen direnean, batez ere finantzen eta kontabilitatearen alorrean.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan, kanalaren hedadura, edukia eta erabilera dago jasota, eta salaketaren konfidentzialtasuna bermatzen du.

- Prestatzeko eta eguneratzeko aldiaren behingo programak, finantza-informazioa prestatzeko eta berrikusteko eta FIBKs-a ebaluatzeko zereginak dituzten langileentzat; kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen gestioa behinik behin sartu behar dira.

Entitateak prestakuntza-plan bat du ezarrita, finantza-informazioa prestatzen eta berrikusten zuzenean esku hartzen duten langileek beren funtzioak betetzeko beharrezko trebakuntza eta gaitasun profesionalak dituztela bermatzeko. Xede horrekin, indarreko arautegi-eskakizunen berri jasotzen dute horiek etengabe.

Entitateko prestakuntza-sailak prestakuntza-jardura eta -programak kudeatzen ditu, eta egindako ikastaro guztien eta haien ezaugarrien erregistro eguneratua mantentzen du. Finantza-informazioa prestatu eta berrikusteko prozesuan parte hartzen duten departamentuek prestakuntza jaso dute kontabilitate-arauei, auditoretzari eta finantza-arriskuen gestioari eta kontrolari buruz. Gainera, araudietan gertatzen diren aldaketengatik eguneraketak etengabe jasotzen dituzte.

Prestakuntza-saioak presentzialak eta onlinekoak izaten dira eta barruko nahiz kanpoko prestatzaileek ematen dituzte.

## F.2. Finantza-informazioaren arriskuak ebaluatzea

Azaldu, gutxienez:

F.2.1. Arriskuak (errorearena eta iruzurrarena barne) identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak:

- Prozesua badagoen eta dokumentatuta dagoen.

Entitatearen zuzendaritzak Committee of sponsoring organizations of the treadway commission (aurrerantzean COSO) entitateak ezarritako nazioarteko estandarren arabera garatu du FIBKSa. Estandar horietan bost osagai finkatzen dira, barne-kontrolko sistemen eraginkortasuna eta efizientzia oinarritzeko:

- Jarduera horien guztien jarraipena egiteko kontrol-giro egokia sortzea.
- Entitateak bere finantza-informazioa prestatzean izan litzakeen arrisku guztiak ebaluatzea.
- Arriskurik larrienak arintzeko beharrezko kontrolak diseinatzea.
- Informazio-zirkuitu egokiak finkatzea, sistemaren ahuleziak edo eraginkortasunik ezak antzeman eta jakinarazteko.
- Kontrolak monitorizatzea, egoki funtzionatzen dutela eta denboran eraginkorrak direla bermatzeko.

Horrela, finantzetako egoera-orrietan eragin nabarmena izan dezaketen arriskuak identifikatzeko prozesuaren ardatza izaten da finantza-informazioa sortzeari lotutako gestio-prozesu kritikoak identifikatzea eta arrisku horiek gauzatzen diren finantzetako egoera-orrien areak edo epigrafeak zehaztea. Prozesuak eta areak analizatzeko prozesuan, hauek hartzen dira kontuan: eragile kuantitatiboak (saldoa eta xehetasun-maila) eta eragile kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitatearen konplexutasun-maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahuleziak eta abar).

Finantza-informazioaren barne-kontrolko arriskuak antzeman eta ebaluatzeko prozesua dinamikoa da, etengabeko eboluzioa du denboran zehar eta unean-unean islatzen ditu taldearen negozioaren egoera, horri eragiten dioten arriskuak eta horiek arintzeko kontrolak. FIBKsaren kontrolen eraginkortasuna ebaluatzeko, arriskuak identifikatzeko prozesu hori hartzen da oinarri, antolamenduko eta taldeko negozioetako aldakuntzak aintzat hartuta eta materialtasun-mailari, gertatzeko probabilitateari edo kontrol horiek estaltzen dituzten arriskuen balizko eragin ekonomikoari erreparatuta.

- Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna, eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.

Prozesua diseinatzeko, CNMVren kotizatutako entitateen finantza-informazioari buruzko barne-kontrolaren dokumentuan agertzen den finantza-informazioko helburu guztiak hartu dira kontuan (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna, eta eskubideak eta betebeharrak).

Aurreko atalean adierazienez, kuantitatiboak eta kualitatiboak dira FIBKsaren diseinuan sartutako arrisku-mota guztiak antzemateko erabili beharreko irizpideak, eta argitaratutako finantza-informazioaren gaineko errore- eta iruzur-arriskuen identifikazioa ere hartzen da aintzat.

Area materialak eta prozesu nabarmenak gutxienez urtean behin identifikatzea dago aurreikusita, eta finantza-informaziorik berriena erabiltzea. Ebaluazio hori egingo da, halaber, aurretik identifikatu ez diren eta finantza-informazioan erroreak azaleratzen dituzten egoerak gertatzen direnean, eta eragiketetan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean eta, horien ondorioz, arrisku berriak identifikatzen direnean. Horien artean sar daitezke taldearen egituraren aldaketak eskatzen dituzten egoerak, besteak beste: bateratze-perimetroaren edo negozio-lerroen aldaketak eta beste gertaera aipagarri batzuk.

- Bateratze-perimetroa identifikatzeko prozesurik badagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik edo asmo bereziko erakunderik badagoen.

Prozedura bat dago kontsolidazio-perimetroa identifikatu eta eguneratzeko, eta Finantzen Area da erantzulea. Hiru hilean behin, partaidetzapeko sozietateen inbentarioa gainbegiratzen da, aldaketarik badagoen ikusteko, eta, hala bada, finantza-informazio bateratua lortzeko sistemetan sartzeko.

- Prozesuak bestelako arrisku-mota batzuen —eragiketen gainekoak, teknologikoak, finantzarioak, legekoak, fiskalak, ospeari buruzkoak, ingurumenekoak...— eraginak aintzat hartzen baditu, finantzetako egoera-orriei eragiten dieten heinean.

Aurreko puntuetan aipatuenez, ezarrita dauden kontrol-estandarren eta metodologiaren ondorioz aintzat hartzen dira beste arrisku-mota batzuen eraginak ere (merkatu-arriskuarenak, eragiketa-arriskuarenak, arrisku teknologikoarenak, finantza-arriskuarenak, lege-arriskuarenak, ospe-arriskuarenak eta beste edozein izaeratako arriskuenak), finantza-informazioan eragina izan dezaketen heinean.

- Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.

Arriskuak eta kontrolak identifikatzeko prozedura gauzatzearen arduraduna Plangintza Departamentua da, Finantzen Arearen mendekoa. Arriskuak eta kontrolak identifikatzeko prozesuak gainbegiratzeko ardura, berriz, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak du.

### F.3. Kontrol-jarduerak

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, ea hauek gutxienez badauden:

F.3.1. Balore-merkatuetan argitaratu beharreko finantza-informazioa eta FIBKSaren deskribapena berrikusteko eta baimentzeko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzetako egoera-orrietan ondorio materialak sor ditzaketen transakzio-mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuari buruzkoa barne). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitate-itxierako prozedura eta iritzi, estimazio, balioztapen eta proiektio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

Merkatuetan argitaratzen den taldeari buruzko finantza-informazioa berrikusi eta baimentzeko prozedurak Finantzen Areako zuzendaritzak abiatzen ditu, berrikuspena eginez.

Finantza-informazio arautua prestatzeko eta aurkezteko prozesuak gainbegiratzeko Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen eskumena da, eta helburu hau du: indarrean dauden kontabilitate-arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela ziurtatzea, Kontseilu Errektoreak formulatu baino lehen.

Finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen transakzioekin lotura zuzena duten jarduera eta kontrolei dagokienez, entitateak area eta departamentuen berariazko prozedura-eskuliburuak ditu ezarrita, bai eta finantza-informazioari buruzko kontrol-areenak ere. Eskuliburu horiek areek euren egiten dituzte, eta Kontseilu Errektoreak onetsi.

Hauek sartzen dira prozeduretan: organigrama eta prozesuan inplikaturako eginkizunak, ukitutako sistemak eta prozesuaren deskribapena. Bestalde, arrisku- eta kontrol-matrizeek arlo hauek zehazten dituzte, besteak beste:

- arriskuaren deskribapena
- kontrol-jarduera
- kontrolaren sailkapena: funtsezkoa/estandarra
- kontrolaren kategoria: prebentziozkoa/detektatzailea
- metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa
- kontrola euskarritzen duen sistema
- kontrolaren eragilea eta arduraduna
- kontrolaren maiztasuna
- kontrolaren ebidentzia

Ondoren, entitatearen finantza-areei lotutako prozesu nabarmenak zehaztu dira (zeharkako prozesuak eta negozio-prozesuak bereiziz); horietarako aurretik aipatutako dokumentazioa dago:

Zeharkako prozesuak:

- kontabilitate-itxiera
- baterakuntza
- gestio fiskala eta legezkoa
- kontrol informatiko orokorrak
- iritziak eta estimazioak negozio-prozesuak
- kreditu-inbertsioa
  - ematea
  - jarraipena eta berreskurapena
- finantza-tresnak
- zorra ordaintzeko jasotako aktibo higiezinak

Aipatu dugun dokumentazio deskribatzaileak hauek hartzen ditu barne:

- Identifikatutako prozesuetako bakoitzean parte hartzen duten areen eta departamentuen xehetasuna.
- Hasiera-hasieratik prozesuarekin zerikusia duten jardueren prozedurei, kontrolei eta egiaztapenei buruzko finantza-informazioa nola sortu adierazten duen deskribapena.
- Prozesu bakoitzean parte hartzen duten sistema informatikoen identifikazioa.
- Entitatearen finantzetako egoera-orrietan eragin materiala duten arrisku nabarmenen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa eta deskribapena, eta aurretik antzemandako arriskuekin lotzea.

Caja Laboralaren kontabilitate-itxieraren prozedura mekanizatuta dago, eta kontabilitatea automatikoki egiten da, entitateko aplikazioen bidez. Lehen prozesu hori gauzatutakoan, Finantzen Areak berrikusi egiten du informazioa, alderatuz bai aurreko hileko datuekin, bai aurreikusitako kopuruekin, hileko balantzearen eta emaitza-kontuaren itxiera balidatzeko.

Filialen kontabilitate-itxiera dagokion entitateak egiten du, higiezinaren sustapeneko sozietate batzuen izan ezik, azpikontrataturiko hirugarren batek egiten baitu. Filialen informazioa jasotakoan, Caja Laboraleko Finantzen Areak berrikusi egiten du, baterakuntza-prozesua egiteko.

Urteko kontuetan aipatuenez, zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko erabili diren estimazioak entitate nagusiko eta partaidetzapeko erakundearen goi-zuzendaritzako kideek egin eta administratzaileek berretsi dituzte. Urteko kontu horietan, entitateak iritziak edo estimazioak egiteko aukera ematen duten arlo nagusien nondik norakoak islatzen ditu, eta taldeak horien guztien inguruan aurreikusitako funtsezko hipotesiak zehaztu. Ildo horretatik, estimazio nagusi horiek honako hauek hartzen dituzte kontuan:

- Zenbait finantza-aktiboren narriaduraren ondoriozko galerak.
- Aktibo ukigarrietako eta aktibo ukiezinetakoa elementuei aplikatutako balio-bizitza.
- Baterakuntzako merkataritzako funtsaren narriaduraren ebaluazioa.
- Kotizatu gabeko zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa.
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera.
- Aseguruengatik pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak.
- Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak.
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren ebaluazioa.
- Sozietateen gaineko zergaren estimazioa.

Horrez gain, Caja Laboralak iritzi eta estimazioak egiteko politika orokorra ezarria du, FIBKSaren barruan. Aintzat hartu beharreko alderdi guztiak eta iritzi eta estimazioak prestatu eta berrikusteko erantzukizunak zehazten ditu politika horrek.

F.3.2. Finantza-informazioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasunari, aldaketen kontrolari eta jarduketei, jarraitutasun operatiboari eta funtzio-bereizketari buruzkoak).

Caja Laboralak informazio-sistemak erabiltzen ditu, bere eragiketen erregistroa eta kontrola egokiak izan daitezzen. Beraz, horien funtzionamendu egokiaren mende dago, konfidentzialtasunari, erabilgarritasunari eta osotasunari dagokienez.

Arrazoi hori dela eta, entitateak barne-kontrolerako politikak eta prozedurak erabiltzen ditu informazio-sistemetan. Merkatuko segurtasun-estandar nagusiekin lerrokatuta daude politika eta prozedura horiek, eta, finantzetako egoera-orriekin zuzenean edo zeharka lotuta, finantza-informazioa behar bezala egiten eta argitaratzen dela bermatzen dute.

Zehazki, bereziki nabarmenak dira entitatearen barne-kontrolerako ereduaren alderdi hauek:

1. Segurtasun Batzordea, entitatearen segurtasun-jarduerak zehaztu eta gainbegiratzearen ardura duen organoa.
2. Krisia Kudeatzeko Batzordea: krisialdian negoziaren jarraitutasuna bermatzeko ekintzak koordinatzeko eta gainbegiratzeko organoa.
3. Segurtasuneko Arau Multzoa (SAMA), derrigorrezko eskakizun korporatiboak jasotzen dituen dokumentu-multzoa. Zuzendaritzak onetsi du eta entitate osoan aplikatzekoa da. Lau maila ditu: segurtasun-domeinu bakoitzeko helburua zehaztasun handiz finkatzen duten politikak, segurtasun-area bakoitzean ezarri beharreko kontrol bereziak definitzeko arauak, segurtasuneko funtzioen definizioa eta horiek betearaztearen arduradunak eta informazio-sistemen segurtasun-prozedurak. Prozedura horietan, beharrezko jarraibide tekniko eta antolamenduzkoak zehazten dira, entitatearen baliabideak eta datuak aldatzea, galtzea, erabilezin egotea eta baimenik gabe eskuratzea eta tratatzea saihesteko. Alde horretatik, besteak beste, sarbideen kontrol egokia eta funtzioen banaketa ziurtatzeko baldintzak sartzen dira, hurrengo puntuetan azaltzen denez.
4. Sistemen segurtasunarekin eta aplikazio eta sistema informatikoetarako sarbideekin zerikusia duten barne-politika eta -prozedurak, roletan oinarrituak eta unitate/lanpostu bakoitzari esleitutako funtzio eta gaitzuekin bat datozenak, funtzioen bereizketa egokia ziurtatzeko.
5. Modu zentralizatuan kudeatutako sarbideen eta pasahitz korporatiboaren segurtasun-politika, non sistemetara sartzeko segurtasun-kontrolak jardueraren arrisku-mailara eta aktiboaren kritikotasun-mailara egokitzen diren.
6. Baimenik gabeko sarbidea eta erakundearen informazioaren eta informazioa tratatzeko baliabideetan kalteak eta interferentziak saihestearren segurtasun fisikoko perimetroak erabiltzeko politikak eta jarraibideak.

7. Kontrol kriptografikoak erabiltzeko politikak, informazioaren erabilera egokia eta eraginkorra bermatzeko eta informazioaren konfidentzialtasuna, egiazkotasuna eta/edo osotasuna babesteko helburua dutenak.
8. Sareetako informazioaren segurtasuna eta baimenik gabeko sarbideetatik konektatutako zerbitzuen babes-barmatzeko ezarritako prozedurak.
9. Ezarritako aldaketak erregistratu eta gestionatzeko eman beharreko urratsei buruzko xehetasun-prozedurak eta garapen berriak probatzeko eta lehendik daudenak mantentzeko metodologiak. Bermatu nahi dena da, aplikazio berriak garatzeko eta daudenak moldatzeko, zehaztapen-, garapen- eta proba-prozesu bat gauzatzea, finantza-informazioari tratamendu fidagarria egiten zaiola bermatzeko. Entitateko informazio-sistemetak garapen berrietan edo hobekuntzetan informazioaren segurtasunari lotutako baldintzak sartu behar dira, horietan dagoen informazioaren eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta integritatea bermatzekotan.
10. Negozioaren jarraitutasunerako eta hondamendietan erantzun eta suspertzeko plana, intzidente kritiko bat gertatzekotan pertsonen segurtasuna eta eragiketen jarraitutasuna bermatzeko helburua duena. Xede horretarako, zerbitzu kritiko guztietarako babes-sistemak daude, eta barne hartzen dituzte komunikazio erredundanteko eta hornitzaileak txandakatzeko lineak, bai eta planean zehaztutako arrisku-egoerentarako suspertze-estrategia bereziak ere. Plan hori entitateko pertsonen jakinarazten zaie, eta probak eta kontrolak egiten zaizkio, egoki funtzionatzen duela eta aldian behin eguneratzen dela egiaztatzeko.
11. Kontrol Orokor Informatikoen Prozedura, finantza-informazioa osatu eta argitaratzearen inguruko prozesuak euskarritzen dituzten informazio-sistemen barne-kontrolerako oinarriak finkatzen dituena.
12. Prestakuntza- eta kontzientziazio-programak, entitateari segurtasunaren arloko langile kualifikatu eta prestatuak emateko, funtzioaren eta informazioa eskuratzeko beharrendin araberak. Entitate osoarentzat egindako Urteko Prestakuntza Planean segurtasunarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak sartzen dira. Era berean, planak sentsibilizatza bideratutako gaiak garatzen ditu, langileen —goi-zuzendaritzakoak barne hartuta— entrenamendua ahalbidetzen duten ekintza praktikoen eta simulazioen bidez.
13. Informazio-sistemetan pribilegio-maila handia behar duten pertsonen aplikatzeko kontu pribilegiatuen gaineko kontrolak, sistemen erabiltzaile pribilegiatuen pasahitzak gorde ahal izateko eta egindako ekintzen ikuskapen-mailari eusteko —saioak grabatuko dira—.
14. Zentralizazioa eta zaintza zentralizatua, sistemetak jarraiera-erregistroetako arau aplikagarriek ezarritako epeen arabera, egileen berri izatea eta eragiketen trazabilitatea bermatuz.
15. Politikak eta prozedurak, informazioaren segurtasuneko gertaerak eta gorabeherak monitorizatu, detektatu, aztertu eta jakinarazteko; gorabeherak kudeatzeko jarduerak erregistratzeko; probak erabiltzen direla bermatzeko, eta horien erantzuna prestatzeko, barne harturik mailakatzeko, berreskuratze kontrolaturako eta barneko nahiz kanpoko pertsonen edo hirugarren erakundeei jakinarazteko eragiketarako.
16. Informazioaren eta horri lotutako aktiboen gaineko kontrolak, dagokion inbentarioa egitearen, babes-erantzukizunak definitzearen eta horien jabeak sailkatzearen eta esleitzearen bidez.
17. Informazioaren edo segurtasun-betekizunen segurtasunari buruzko legezko, araugintzako, estatutuetakoko edo kontratuzko betebeharrak identifikatzea eta etengabe zaintzea. Segurtasun-betekizunetan sartzen dira jabetza intelektualeko eskubideak izan ditzaketenak eta patentatutako software-produktuen erabilera.
18. Hodeian oinarritutako zerbitzu, aplikazio edo azpiegiturak diseinatu, kontratatu eta kudeatzeko prozesuen kontrolak, entitatearen informazio-aktiboak behar bezala babesten direla eta aplikatu beharreko lege eta arau guztiak betetzen direla bermatzeko.
19. Segurtasun fisikoaren eta zibersegurtasunaren arloan hornitzaileekiko eta hirugarrenekiko harremanak bermatzeko prozedurak, entitateko edozein areak edo departamentuak egiten dituzten proiektu eta ekimenen bizitza-ziklo osoan.
20. Segurtasuna ebaluatzeko urteko programa, informazio-sistemetan dauden segurtasun-akatsak aktiboki identifikatzeko.

F.3.3. Hirugarrenei azpikontratutako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontrolako politikak eta prozedurak. Aditu independenteen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioztapenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

Caja Laboralak Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika bat du, eta politika horren azken eguneratzea Kontseilu Errektoreak onetsi zuen 2021eko azaroaren 30ean.

Hirugarrenengan (bizi-zikloaren fase guztietan) eskuordetzen diren zerbitzu edo funtzioen esparru metodologikoa, kategorizazioarako printzipio eta irizpideen definizioa eta jarraitu beharreko prozedurak ezartzen ditu. Hartara, ordezkari lotutako arriskuak (eragiketenak, ospearenak, informazioaren segurtasunarenak eta abar) egoki identifikatu, balioztatu, kontrolatu eta kudeatzen dira, eta neurri egokiak hartzen dira, haien eragina saihesteko edo arintzeko.

Hirugarrenen Gestioa sekzioaren esku daude jarduerak bizi-ziklo osoan eraginkortasunez koordinatzea eta hainbat area espezialistak parte hartzen dutela bermatzea: Segurtasuna, Jarraitutasuna, Aholkularitza Juridikoa, Datu Pertsonalen Babesa...

Barne Ikuskaritza Departamentuak barne-kontrolako jarduerak egiten ditu, eta kanporatze-esparrua zuzen eta eraginkortasunez aplikatzen dela berrikusten du, politikan deskribatutakoarekin eta araudi aplikagarriarekin bat etorritz.

Aldian behin, hirugarrenek gauzatutako jarduerak aztertzen ditu entitateak, eta begiratzen du ea zein diren garrantzitsuak finantza-informazioa osatzeko prozesuan eta zeharka zeinek jar dezakeen horien fidagarritasuna kolokan. Orain arte, entitateak ez du kanpora atera finantza-informazioan eragin nabarmena duen prozesurik. Halere, entitateak aditu independenteen txostenetara jotzen du, finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen jardunbideak balioztatzeko.

2022ko ekitaldian, hauek izan dira hirugarrenei emandako jarduerak, aditu independenteen balioztapen eta kalkuluekin lotuak: esleitutako higiezin eta Caja Laboralaren kreditu-zorroko eragiketak bermatzeko higiezin tasazioak eguneratzearen alorrekoak.

Entitateak kontrolak ditu ezarrita, tasazio-sozietateen jarduerari lotutako arriskuak arintzeko. Eragiketez arduratzen diren departamentuek gauzatzen dituzte kontrol-eginkizunok, eta baloratzaileren independentzia eta balioztapenen kalitatea bermatzea dute helburu. Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuak laguntzen dio, ezarritako prozeduren eraginkortasuna egiaztatzen.

#### F.4. Informazioa eta komunikazioa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, ea hauek gutxienez badauden:

F.4.1. Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), antolakundeko eragiketa-arduradunekin etengabe harremanak izanez. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, entitateak jarduteko erabiltzen dituen unitateek eskura izango dutena.

Finantzen Areak identifikatzen, finkatzen eta jakinarazten ditu entitateko eta sozietate filialetako kontabilitate-politikak, eta berak erantzuten die sozietate filialek eta entitatearen negozio-unitateek kontabilitate-gaiez egiten dizkioten galderei.

Zehazki, Esku-hartze Departamentuak zehazten eta azaltzen ditu finantza-informazioa prestatzeko arauak, bai eta arau horiek entitatearen eragiketa zehaztetan (adibidez, sozietate filialetarako baterakuntza-paketeetan) aplikatzeko modua ere.

Baterakuntza-paketeak taldeko sozietate filial bakoitzak egin behar ditu, eta Finantzen Area arduratzen da partaidetzapeko sozietate horiek taldeak ezarritako kontabilitate-politikak betetzen dituzten gainbegiratzear. Finantzen Areak, filialen informazioa aztertu eta berrikusi ondoren, egoki deritzen zuzenketak egiten ditu.

Finantzetako egoera-orrietan eragina duen aldaketarik gertatzen bada finantza-informazioari buruzko araudietan, Finantzen Arearen ardura da kontabilitate-arauak berrikusi, aztertu eta eguneratzea. Era berean, area hori arduratuko da aldaketak eta eguneratzeak jakinarazteaz, hala entitateko negozio-unitateei nola filialei.

Hauek hartzen ditu barne entitateak eta bere taldeak aplikatzen duten kontabilitateko finantza-informazioaren esparruak: (i) Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak eta (ii) Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra.



#### F.4.2. Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta FIBKSari buruzko finantza-informazioa formatu homogeneous bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, entitateko edo taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

Finantza-informazioa egiaztatzeko datuak osoak, zehatzak eta egokiak direla eta garaiz eta forman jakinarazten direla bermatzeko kontrol-neurriak daude. Finantza-informazioa bateratu eta prestatzeko prozesua zentralizatuta dago, entitateatik.

Prozesuan zehar, sozietate filialek jakinarazitako finantzetako egoera-orriari buruzko baterakuntza-paketeak input gisa erabiltzen dira, ezarritako jarraibideen eta formatuen arabera, eta eskatutako gainerako finantza-informazioarekin beste horrenbeste egiten da, bai kontabilitateko harmonizazio-prozesuan, bai ezarrita dauden informazio-beharrak estaltzeko. Sozietate filialek emandako finantza-informazioa Finantzen Areak berrikusten du.

Finantzen Areak kontrol jakin batzuk egiten ditu, sozietate filialetatik eta negozio-unitateetatik jasotako finantza-informazioaren fidagarritasuna eta tratamendu egokia bermatzeko. Nabarmentzekoak dira baterakuntza-idazpenak egoki egin diren egiaztatzekoak, aurrekontuen gainean lortutako emaitzetan gertatutako aldaketen gainekoak eta Espainiako Bankuaren egoera-orrietan (balantzeko partidak eta emaitza-kontua lotzen dituztenetan) egindakoak.

#### F.5. Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.5.1. Ikuskaritza Batzordeak FIBKSa gainbegiratzeko gauzatutako jarduerak eta ia entitateak barne-ikuskaritzako funtziorik baduen, besteak beste batzordeari laguntzeko barne-kontrolako sistema (FIBKSa barne) gainbegiraten. Orobat, jakinaraziko da ekitaldian FIBKSari egindako ebaluazioak zer irismen duen, ebaluazioaren arduradunak zer prozedura erabiltzen duen emaitzak jakinarazteko, entitateak baduen neurri zuzentzaileak zehazten dituen ekintza-planik eta finantza-informazioan horien eragina aintzat hartu den.

Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak sozietatearen finantza-informazioa eta barne-kontrolako sistemak osatu eta aurkezteko prozesua gainbegiraten du. Jarduera hori Barne Ikuskaritzako Departamentuan eskuordetzen ditu.

Barne-ikuskaritzako funtzioa (BIFa) independentea da —entitatearen arriskuak gestionatu eta kontrolatzearen esparruaren hirugarren babes-lerroa—, eta, hierarkiari begira, LABORAL Kutxako Kontseilu Errektorearen lehendakariaren mende dago, eta, funtzionamenduari begira, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen mende.

Barne-ikuskaritzako funtzioaren xedea da barne-kontrolako, arriskuak (oraingoak eta berriak) kudeatzeko eta entitatearen gobernurako prozesu eta sistemen egokitasuna eta eraginkortasuna gainbegiratzea.

Beste alde batetik, entitatearen Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeak ezartzen duenez, Zuzendaritza Kontseiluaren ardurak da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea.

Garrantzi berezikotzat jotako prozesuen berrikuspena urteko jarduketan (FIBKSaren esparruan) sartzen du Barne Ikuskaritzako Departamentuak, guztiak hiru urteko epean berrikusita izateko helburuarekin. Garrantzi berezikotzat jotako zenbait arlo edo prozesu kanpo uzten ditu; besteak beste, kontabilitate-itxieraren prozedura, iritzi eta estimazioak berrikustea eta informazio-sistemen gaineko kontrol orokorrak, horiek urtean behin ebaluatzen baitira.

2022ko ekitaldian FIBKSari egin zaizkion berrikuspenen eta ebaluazioen honako hauek egin dira:

- Kontabilitate-itxierako eta baterakuntzako zeharkako prozesuak berrikusi. Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratu.
- Zuzkidura eta pasibo kontingente garrantzitsuak kalkulatzeko erabilitako iritzi eta zenbatespenak berrikusi.
- Kontrol orokor informatikoen zeharkako prozesua berrikusi.
- Kreditu-inbertsioaren negozio-prozesua berrikusi.

Bestalde, jarraipena egin zaio aurreko ekitaldietan gauzatutako berrikuspenetan eman ziren hobekuntza-gomendioen ezarpenari.

2022an egin den FIBKSaren berrikuspenaren eta ebaluazioaren emaitza Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari eta Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztu die, aldian behin, Barne Ikuskaritzako Departamentuko zuzendariak.

F.5.2. Eztabaida-prozedurarik badagoen eta prozedura horren bidez kontu-auditoreak (auditoretzako arau teknikoetan xedatutakoari jarraikiz), barne-auditoretzako funtzioak eta gainerako adituek baduten urteko kontuak berrikusteko prozesuetan edo unean uneko bestelako jardunbideetan zehar lortutako informazioa helarazterik goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei. Jakinaraziko da, halaber, ekintza-planik ote dagoen, behatutako ahultasunak zuzentzeko edo arintzeko.

Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea ekitaldi bakoitzean birritan biltzen da, gutxienez, kanpo-auditorearekin.

- Behin, urteko auditoretzarako behin-behineko bisitaren ondoriozko atariko lana bukatzen denean; kanpo-auditoreak ondorioen berri ematen du bertan.
- Beste behin, urteko kontuen formulazioari ekin baino lehen. Bertan, egindako auditoretzaren azken ondorioak aurkezten ditu kanpo-auditoreak.

Kontu-auditoreak zuzeneko sarbidea du goi-zuzendaritzan eta barne-ikuskaritzako zuzendaritzan, eta horiekin bilerak egiten ditu, aldian behin, lanerako beharrezko informazioa lortzeko eta antzemandako ahuleziak lantzeko.

Kanpo-auditoreak barne-kontrolari eta kontabilitateko prozedura administratiboei buruz osatutako memoranduma, barne-kontrolako sistemaren eta horiei lotutako arriskuen gainean hobekuntza-iradokizunak jasotzen dituena, Zuzendaritza Kontseiluari eta Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari aurkezten zaie, eta, ondoren, entitatearen Kontseilu Errektorearen esanetara jartzen da. Agiri horretan, gomendio bakoitzari Zuzendaritza Nagusiak egindako iruzkinak ere jasotzen dira, bai eta, dagokionean, ahuleziak konpontzeko erabilitako ekintza-planak edo neurriak ere.

Barne Ikuskaritzak egindako lanen emaitzari dagokionez, departamentuko zuzendariak Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari eta, garrantziaren arabera, Zuzendaritza Kontseiluari aurkezten dizkie txostenak, ikuskatutako arearekin kontrastea egin ostean. Gainera, barne-ikuskaritzako funtzioak (BIFak) emandako gomendioei erantzuteko onartu ziren ekintza-planen ezarpen-mailaren jarraipena egiten du. Zehazki, ikuskatutako area edo unitateei egindako gomendioen eta area edo unitate horiek ezarritako ekintza-planen egoeraren jarraipena egiten du BIFaren arduradunak. Bereziki, erabat ezarri arte etengabeko jarraipena egiten da, berehalako neurriak hartzea eskatzen duten garrantzi handiko aurkikuntzen gainean. Garrantzi ertaineko aurkikuntzei hiru hilean behin egiten zaie jarraipena, eta, garrantzi txikiko aurkikuntzei, sei hilean behin.

Ikuskaritza Departamentuko zuzendariak garrantzi handiko eta ertaineko aurkikuntzei buruzko gomendioen egoeraren berri ematen dio Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari, asko jota sei hilean behin.

Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren zuzendaritzak eskatuta, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea hiru hilabeterik behin biltzen da, gutxienez, bere erantzukizunetako bat betetzeko, alegia: zuzendaritzaren lan nagusiei buruzko xehetasunak jasotzeko.

## F.6. Bestelako informazio garrantzitsua

-

## F.7. Kanpo-auditorearen txostena

Azalduko du:

F.7.1. Merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreak gainbegiratu duen. Hala bada, entitateak haren txostena aurkeztuko du eranskin gisa. Bestela, arrazioen berri eman beharko du.

Entitateak ez du beharrezkotzat jo merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreek gainbegiratzea.

## G. BESTE ARGIBIDE INTERESGARRI BATZUK

Entitatean edo taldeko sozietateetan gobernu korporatiboaren gaineko alderdi nabarmenen bat badago txosten honen gainerako ataletan jaso ez dena eta sartzea komeni dena informazio osatuagoa eta arrazoiuagoa izateko entitatearen edo beraren taldearen gobernuaren egiturari edo jardunbideari buruz, azal ezazu labur-labur.

Atal honetan sartu ahal izango da, halaber, txostenaren gainerako atalekin zerikusia duen beste edozein informazio, argibide edo ñabardura, garrantzitsua bada eta errepikakorra izan ezean.

Zehazki, hauxe adieraziko da: entitatea Espainiakoaz bestelako legeria baten mende dagoen, gobernu korporatiboari dagokionez, eta, dagokionean, eman beharrekoa den eta txosten honetan galdatzen denaz bestelakoa den informazioa ere sartu den.

Entitateak jakinarazi ahal izango du, halaber, bere borondatez printzipio etikoen edo jardunbide egokien alorreko nazioarteko, sektorekako edo beste arlo bateko bestelako kodeei atxiki zaien. Hala bada, kode horren eta atxikitze-dataren berri emango du entitateak.

1.- Informazio honek A. Jabetzaren egitura atala osatzen du:

Caja Laboraleko bazkide diren kooperatiba eta horien merkataritza-sozietate gehienak Mondragón Corporación Cooperativaren parte ere badira. Caja Laborala ere partaide duen korporazio hori askatasunez elkartutako kooperatiben elkarte da. Kooperatibok lankidetzako balioak partekatzen dituzte eta elkarrekin jardunez lehiarako abantailak lortzea dute helburu.

2.- Informazio honek C.1.6 Kontseilarien ordainsariak atala osatzen du:

2022ko Batzar Nagusiak onartu zuenez, Kontseilu Errektoreko kideek zuzeneko ordainsaria jaso ahal izango dute, zuzeneko kudeaketako lanak egiten dituztenean eta/edo bertaratze-dietengatik, arduraldiaren eta erantzukizunaren osagaietan oinarrituta. Dieta horiek Kontseilu Errektoreko kideen artean banatuko dira, Kontseiluak berak hartutako erabakien arabera, betiere Batzar Nagusiak kontseilari guztientzat finkatzen dituen urteko ordainsarien gehieneko zenbatekoaren barruan.

3.- Printzipio etikoen edo jardunbide egokien kodeei atxikitzea:

2012an, Gobernuak 6/2012 Errege Lege Dekretua, baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neurriei buruzkoa, argitaratu zuen. Horren bidez, Jardunbide Egokien Kodea atondu zen, finantza-erakundeak euren borondatez bat egin zezaten. Jardunbide Egokien Kodeak kolektibo hautagarria zeritzona aurreikusten zuen; hau da, hipoteka-maileguetako zer eragiketa sar zitezkeen kodearen barruan eta zer arintze-neurri aurreikusten ziren mailegu-hartzaileentzat. Jardunbide Egokien Kodea urtez urte luzatu dute ondoko gobernuak, eta zenbait aldaketa egin dizkiote.

Entitatea atxiki egin zitzaion kodeari.

Joan den azaroaren 23an, 19/2022 Errege Lege Dekretua argitaratu zen BOEn, eta honako hauek egin zituen:

- Jardunbide Egokien Kodea (2012koa) aldatu.
- Jardunbide Egokien Kodeak aurreikusitako kolektibo hautagarria zabaldu.
- Jardunbide Egokien Kode berria sortu (2022koa). Entitatea atxiki egin zaio horri ere.

Bestalde, Nazio Batuen Banka Arduratsuen Printzipioak sortu eta sinatu zituzten bankuetako bat da entitatea, 2019ko irailetik. Ekimen horren helburua da finantza-sistemak etorkizun jasangarriarekin dituen konpromisoa eta erantzukizunak zehaztea, Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJHekin) eta Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioekin bat. Printzipio horiek etorkizuneko banku-sistema jasangarriako esparrua sortzen dute, eta gizarteari nolako ekarpen positiboa egiten dion erakusten. Urtero egiten den Garapen Txostena entitatearen webgunean dago eskuragarri.

Gobernu Korporatiboaren Urteko Txosten hau entitateko administrazio-kontseiluaren batzarrak onetsi du, data honetan:

2023-02-28

Adieraz ezazu zein kontseilarik edo administrazio-organoko kidek eman duen aurkako botoa edo abstentzioa, txosten hau onestearen gainean.

Txosten hau aho batez onetsi da.